



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2016/12/19

## **Batzar Nagusiek 150.000 euroko balioko aldaketak onartu ditue Bizkaiko Aurrekontuen Proiektuan**

Bizkaiko Batzar Nagusiek, batzarretako taldeek Bizkaiko Aurrekontuen proiektuaren aurrean aurkeztu dituen 569 zuzenketa-eske partzialen eztabaidea hasi dabe gaur. Gaur egin diran saio bietan (Herri Administrazio eta Erakunde Harremanak eta Enplegu, Gizarte Inklusio eta Berdintasun saila), bost zuzenketa-eske partzial onetsi dira, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordean eztabaidetan ziran 145etik. Adostutako aldaketek 150.000 euroko eragin orokorra izango dabe aurrekontuetan, eta Euzko Abertzaleak (EAJ-PNV) eta Euskal Sozialistak (PSE-EE) taldeek batera aurkeztu dituen ekimenak dira, oposizinoak –EH Bildu, Podemos Bizkaia, PP eta Talde Mistoa– defendidutakoak ez diralako onartu, jeltzaleek eta sozialistek osatutako gehiengoaren kontrako botoak dirala eta.

Aurrekontuetako aldaketek eragina izango dabe Teresa Laespadak zuzentzen dauen saileko aurrekontuan. 25.000 euro gehiago gehituko jakez 2017an foru gobernua onestea aurreikusten dauen Bardintasunerako Foru Araua garatzera bideratutako partidari eta baita Garapenaren Lankidetzara jagokonari be. Azken zuzenketa-eske horrek hirugarren munduari laguntzeko hainbat taldek gauzatutako eskariari erantzuten deusie. Eskari horreek aurrekontuen %0,7 lankidetzara eta garapenera bideratzea eskatu eben alegazinoen fasean. Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeek neurria kritikau egin dabe, zifra horretatik “urrun” geratzen dalako. Partida biak Herritarren Eskubideak eta Lankidetzera programaren barruan dagoz.

Gainera, Ekonomia eta Ogasuneko Batzordeak, Foru Gobernua eusten daben talde bien ekimenez, baita be, 20.000 euroko hazkundera adostu dau Bizkaian lan barik dagozan pertsonen laneratzearen alde behar egiten daben hirugarren sektoreko alkarteen egitekoa bultzatzeko. Gainera, beste 30.000 euro gehiago bideratuko dira 45 urtetik gorako iraupen luzeko lanbakoen eta gizartetik kanpo geratzeko arriskuan dagozan pertsonen artean autoenpleguari laguntzeko apustua egiten dauen programara.

Bukatzeko, gizarteratze programaren barruan, batzordeak onetsi dauen zuzenketa-eske partzialak 50.000 eurotan handitzen dau laguntasuneko programak bultzatzera bideratutako zenbateko ekonomikoa. Podemos Bizkaia eta EH Bildu taldeen eretziz, hazkunde hori “ez da nahikoa”, ia milioi bi euroko (1.984.395) hasierako aurrekontuan oinarritzen dalako.

### **ALDAKETA BARIK HERRI ADMINISTRAZIO ETA ERAKUNDE HARREMANEN SAILEAN**

Momentuz, aurrekontuak ez dau aldaketarik sartuko Ibone Bengoetxeak zuzentzen dauen sailean. Batzordeak ez ditu onartu Batzarretako taldeek Herri Administrazio eta Erakunde Harremanen sailaren aurrekontuaren aurrean aurkeztu dituen 68 zuzenketa-eske partzialak.

Taldeek, datorren abenduaren 27an, lurraldeko kontuen batzarretako izapidea itxiko dauen osokorako erreserbauko ditue onetsi ez diran zuzenketa-eske “guztiak”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
19/12/2016

## **Las Juntas Generales acuerdan cambios en el Proyecto de Presupuestos de Bizkaia valorados en 150.000 euros**

Las Juntas Generales de Bizkaia han iniciado hoy el debate de las 569 enmiendas parciales presentadas por los grupos junteros al proyecto de Presupuestos de Bizkaia del año 2017. En las dos sesiones celebradas hoy (Administración Pública y Relaciones Institucionales, y Empleo, Inserción Social e Igualdad), se han aprobado cinco enmiendas de un total de 145 que se debatían en la Comisión de Economía y Hacienda. Las modificaciones acordadas, que tendrán un impacto presupuestario total de 150.000 euros, corresponden a iniciativas conjuntas presentadas por los grupos Nacionalistas Vascos (PNV) y Socialistas Vascos (PSE-EE), ya que las defendidas por la oposición –EH Bildu, Podemos Bizkaia, PP y grupo Mixto- han sido rechazadas por la mayoría parlamentaria de jeltzales y socialistas.

Los cambios presupuestarios tendrán impacto en el presupuesto del área que dirige Teresa Laespada. Se añaden 25.000 euros más, tanto a la partida destinada a desarrollar la Norma Foral de Igualdad que el equipo de gobierno foral espera aprobar en el año 2017, como a la de Cooperación al Desarrollo. Esta última enmienda da respuesta en parte a la solicitud cursada por distintos colectivos de ayuda al tercer mundo que pidieron en la fase de alegaciones ciudadanas destinar el 0,7% del presupuestos a cooperación y desarrollo, aspecto que tanto Podemos Bizkaia y EH Bildu han criticado por quedarse "lejos" de esta cifra. Ambas partidas están incluidas en el programa Derechos Ciudadanos y Cooperación.

Asimismo, la comisión de Economía y Hacienda ha acordado también, a iniciativa de los dos grupos que apoyan al Gobierno foral, un incremento de 20.000 euros a la labor que realizan asociaciones del tercer sector que trabajan en Bizkaia a favor de la inserción laboral de las personas desempleadas. Además, otros 30.000 euros extras irán destinados a incrementar la cuantía económica para el programa que apuesta por apoyar el autoempleo en personas mayores de 45 años, parados y paradas de larga duración, o personas en riesgo de exclusión social.

Finalmente, en el programa de inclusión social, la comisión ha aprobado una enmienda parcial que aumenta en 50.000 euros la cuantía económica destinada a favorecer los programas de acompañamiento, incremento que Podemos y EH Bildu han calificado de "insuficiente" ya que se parte de un presupuesto inicial de casi dos millones de euros (1.84.395).

### **SIN CAMBIOS EN ADMINISTRACIÓN PÚBLICA Y RELACIONES INSTITUCIONALES**

De momento, el presupuesto que no variará será el del área que dirige Ibone Bengoetxea. La comisión ha rechazado las 68 enmiendas parciales presentadas por los grupos junteros al área de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

Los grupos se han reservado "todas" las enmiendas rechazadas para el pleno que cerrará el próximo 27 de diciembre el trámite parlamentario de las Cuentas del territorio.